| ARAUTEGIA, DIRU-LAGUNTZAK EMATEKO, OSASUN ETA GIZARTE ZERBITZUEN ALORREKO JARDUERAK FINANTZATZEKO TOLOSAN. | NORMATIVA DE CONCESIÓN DE SUBVENCIONES PARA FINANCIACIÓN DE ACTIVIDADES EN MATERIA DE SALUD Y SERVICIOS SOCIALES EN TOLOSA |
|---|---|
| **1.- SARRERA**<br><br>Tolosako Udaleko Gizarte Politikako Departamentuak aurreikusia du diru-laguntzak ematea osasun eta gizarte zerbitzuen alorretan diharduten entitate eta taldeentzat, herritarren parte-hartzea eta elkartasuna sustatzeko eta babesteko.<br><br>Osasun eta Gizarte Zerbitzuak eskaintzeko ardura publikoa bada ere, inongo administrazioa ez da gai, ezta Udala ere, berez bakarrik herritarren eskaerak bideratzeko; beraz, gestioa herri-entitate eta herri-taldeekin banatu behar du.<br><br>Herritarrak gertuen duen erakunde administratiboa izanik, Udalak udalerrian dauden elkarte eta taldeekin sustapen lana egin behar du, aholkularitza teknikoa eman eta baita babes ekonomikoa ere. Eta horrekin guztiarekin batera, norbanakoek ardura hartu behar dute udal politikarekiko. | **1.- INTRODUCCIÓN**<br><br>El Departamento de Política Social del Ayuntamiento de Tolosa tiene prevista la concesión de subvenciones a entidades y organizaciones que desarrollan su labor en el campo de la salud y servicios sociales, con el objetivo de fomentar y apoyar la participación y la solidaridad ciudadana.<br><br>La prestación de la salud y de los servicios sociales, es de responsabilidad pública, pero ninguna Administración, incluido el Ayuntamiento, es capaz de resolver por sí solo las demandas de la ciudadanía, por lo que debe compartir su gestión con entidades y organizaciones ciudadanas.<br><br>Desde el Ayuntamiento, la instancia administrativa más cercana a la ciudadanía se debe realizar una labor de promoción, asesoramiento técnico y apoyo económico a las asociaciones y colectivos de ámbito municipal. Ello debe ser acompañado de la responsabilidad de las personas con respecto a la política municipal. |
| **2.- DIRU-LAGUNTZEN HELBURUA**<br><br>Diruz lagundu ahal izango dira adierazten diren jarduera eta programek eragindako gastuak eta entitate eskatzaileen mantenimenduko gastuak, baldin eta haien jardunak herritar guztiak hartzen baditu edota hauetariko talde bat edo batzuk:<br>Familia desegituratuak, haurrak, gazteria, emakumeen eta gizonen berdintasuna, desgaitasunen bat dutenak, hirugarren adinekoak, gutxiengo etnikoak, drogaren mendekoak eta, arrisku sozialean egonik, Osasun eta Gizarte Zerbitzuen alorrean beharra duen edozein talde.<br><br>Diru-laguntza jaso ahal izango dute ondorengo jarduera hauek:<br><br>- Asoziazionismoa bultzatzen dutenak.<br>- Hitzaldiak.<br>- Kanpaina dibulgatiboak, azterketak.<br>- Prestakuntza-ikastaroak.<br>- Integrazioari begirako jarduerak (drogaren | **2.- OBJETIVO DE LAS SUBVENCIONES**<br><br>Se podrán subvencionar los gastos derivados de las actividades y programas indicados, así como los de mantenimiento de las entidades solicitantes, cuyo ámbito se extienda a la población en general y en especial a uno o varios de los colectivos siguientes:<br><br>Familias desestructuradas, infancia, juventud, igualdad de mujeres y hombres, tercera edad, minorías étnicas, personas drogodependientes, con discapacidad y cualquier grupo en riesgo social que precise de la atención en el ámbito de la salud y de servicios sociales.<br><br>Las actividades susceptibles de subvención serán:<br><br>- Fomento del asociacionismo.<br>- Conferencias.<br>- Campañas divulgativas, estudios.<br>- Organización de cursos de formación.<br>- Actividades dirigidas a la integración de |

| | |
|---|---|
| mendekoak, desgaitasunen bat dutenak...).<br><br>- Osasun eta gizarte zerbitzuen alorraren barruan kolektiboak atenditzeko jarduerak. | (personas drogodependientes, con discapacidad...).<br>- Atención a colectivos relacionados con el área de salud y servicios sociales. |
| **3. ESKATZAILEEK BETE BEHAR DITUZTEN BALDINTZAK**<br><br>- Elkartearen egoitza edo ordezkaritza iraunkorra Tolosan izatea.<br>- Tolosako Udaleko Elkarteen Erregistroan inskribatuta egotea.<br>- Salbuespen gisa, diru-laguntza jaso ahal izango dute Tolosarentzat interesgarriak direla iritzitako gizarte-jarduerek ere, elkartearen egoitza edo ordezkaritza iraunkorra Tolosan ez badute ere. Baina, nolanahi ere, diruz lagunduko den ekintza Tolosan gauzatu beharko da.<br>- Jarritako helburuak beteko direla bermatzeko behar adinako azpiegitura izatea, hartarako beharrezko eskarmentu operatiboa frogatuz.<br>- Emakumeen eta gizonen berdintasunerako 4/2005 Legea betetzea. | **3.- REQUISITOS DE LAS ENTIDADES SOLICITANTES**<br><br>- Tener su sede social o su delegación permanente en Tolosa.<br>- Estar inscritas en el Registro de Asociaciones del Ayuntamiento de Tolosa.<br>- Con carácter muy excepcional, también podrán ser objeto de estas ayudas, aquellas actividades sociales consideradas de interés para Tolosa, aunque las personas promotoras no tengan sede social o delegación permanente en Tolosa. En todo caso, dichas actividades se deberán realizar en Tolosa.<br>- Disponer de la estructura suficiente para garantizar el cumplimiento de los objetivos, acreditando la experiencia operativa necesaria para ello.<br>- Cumplir con lo dispuesto en la Ley 4/2005 para la Igualdad de Mujeres y Hombres. |
| **4. AURKEZTU BEHAR DEN DOKUMENTAZIOA**<br><br>- Eskaera inprimakia, jardueren urteko memoria, deialdiaren ekitaldikoa —datuak, ahal dela, sexuaren arabera bereizita—, eta sarreren eta gastuen aurrekontua (I. eranskina).<br>. Entitate eskatzailearen estatutuak eta IFZ (baldin eta aurreko deialdietan ez badira aurkeztu).<br>- Zerga betebeharrak egunean dituelako ziurtagiria.<br>- Gizarte Segurantzako betebeharrak egunean dituelako ziurtagiria. | **4. DOCUMENTACIÓN A PRESENTAR**<br><br>- Impreso de solicitud, memoria anual de actividades para el ejercicio de la convocatoria en la que, siempre que sea posible, se segregarán los datos en función del sexo y presupuesto de ingresos y gastos. (Anexo I).<br>- Estatutos de la entidad solicitante y CIF (sólo en el caso de que no se hayan presentado en convocatorias anteriores).<br>- Certificado de estar al corriente en el cumplimiento de las obligaciones tributarias.<br>- Certificado de estar al corriente en el cumplimiento de las obligaciones frente a la Seguridad Social. |
| **5.- ESKARIAK AURKEZTEKO TOKIA ETA EPEA**<br><br>Deialdiari buruzko informazio guztia eskura dago Udalaren web orrian (www.tolosa.eus). Orri horretatik deskarga daitezke inprimakiak.<br><br>Diru-laguntzen eskaerak Tolosako udal erregistroan aurkeztu behar dira, ohizko ordutegian, era berean, aurkez daitezke Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legeak aurreikusitako | **5. LUGAR Y PLAZO DE PRESENTACIÓN**<br><br>Toda la información relativa a la convocatoria estará disponible en la página web municipal (www.tolosa.eus) desde donde se podrán descargar los modelos correspondientes.<br><br>Las solicitudes de subvenciones se presentarán en el Registro Municipal del Ayuntamiento de Tolosa, en sus horarios habituales, así como en cualquiera de los lugares previstos en la Ley 39/2015, del Procedimiento Administrativo Común de las administraciones Públicas. |

| | |
|---|---|
| lekuetan.<br><br>Aurkezteko epea izango da urteko deialdian ezartzen dena. | El plazo de presentación será el recogido en la convocatoria anual. |
| **6.- IZAPIDETZEAZ ARDURATZEN DEN DEPARTAMENTUA**<br><br>Eskaerak Gizarte Politikako Departamentuak izapidetuko ditu. Gizarte Politikako Batzordeak aurkeztu dizkioten eskaerak aztertu, baloratu eta ebazpen-proposamena egingo du, eta eskudun organoari bidaliko dio azken erabakia har dezan.<br><br>Diru-laguntzaren emakida norgehiagoka-erregimenean egingo da; hortaz, kasu bakoitzean zehaztutako irizpideak aplikatu dira eta diruz lagunduko den jarduera-kopurua izango da jardueren kalitatea eta bideragarritasuna ziurtatzeko modukoa.<br><br>Dagozkion erabakiak hartzeko eta jakinarazteko gehienezko epea 6 hilabetekoa izango da, deialdia argitaratzen den egunetik zenbatuta. Amaiturik aipatutako epea berariazko ebazpena jakinarazi gabe, pertsona edo entitate eskatzaileek euren subentzio-eskaera ezetsitzat jo dezakete. | **6. DEPARTAMENTO ENCARGADO DE LA TRAMITACIÓN**<br><br>Las solicitudes serán tramitadas por el Departamento de Política Social. La Comisión de Política Social analizará, valorará y efectuará propuesta de resolución de las solicitudes presentadas, elevando la misma al órgano competente.<br><br>La concesión de la subvención se efectuará en régimen de concurrencia competitiva, de manera que tan sólo se seleccionará, conforme a los criterios fijados en cada caso, un número de ayudas que asegure la calidad y viabilidad de las actividades subvencionadas.<br><br>El plazo máximo para resolver y notificar la resoluciones definitivas será de 6 meses a partir de la publicación de la correspondiente convocatoria. Trascurrido dicho plazo sin que se haya notificado la resolución expresa, las personas o entidades solicitantes podrán entender desestimadas sus solicitudes de subvención. |
| **7. DIRU-LAGUNTZAK EMATEKO IRIZPIDEAK ETA EBALUAZIOA**<br><br>Oinarri hauetako diru-laguntzak eskatuko dituzten eskatzaileei emango zaizkien zenbatekoak kalkulatzeko, hona hemen baremoak, ondorengo irizpideen arabera:<br><br>**a) Hartzaileak kontuan hartuta (40 puntu):**<br><br>• Hartzaile kopurua:<br>100 baino gehiago – 25 puntu<br>50 eta 100 artean – 10 puntu<br>50 baino gutxiago – 0 puntu<br>• Kolektibo hartzailea – 10 puntu<br>*(Zailtasun sozialak dituzten herritarrak, behar sozialak edo bazterketa sozialean gelditzeko arriskuan daudenak, adinekoak, etab.)*<br>• Herritar guztiei zuzendua - 5 puntu<br><br>**b) Proposatutako ekintza edo proiektua kontuan hartuta (33 puntu):**<br><br>• Gizarte Zerbitzuen esku-hartze eremuaren funtzioak osatzea – 10 puntu | **7. EVALUACIÓN Y CRITERIOS DE CONCESIÓN DE SUBVENCIONES**<br><br>Para el cálculo de los importes a conceder a las entidades solicitantes que opten a las ayudas en las presentes bases, se concretan los baremos de acuerdo a los siguientes criterios:<br><br>**a) En relación a las personas destinatarias (40 puntos):**<br><br>• Número de personas destinatarias:<br>Más de 100 – 25 puntos<br>Entre 50 y 100 – 10 puntos<br>Menos de 50 – 0 puntos<br>• Colectivo destinatario – 10 puntos<br>(Ciudadanía con dificultades sociales, personas en riesgo de exclusión social, con necesidades sociales, tercera edad, etc.)<br>• Dirigida a toda la población – 5 puntos<br><br>**b) En relación al proyecto o actividad propuesta (33 puntos):**<br><br>• Completar las funciones de intervención de los Servicios Sociales – 10 puntos |

- Ekintzaren iraupena
    - Urte osoan zehar – 8 puntu
    - Ekintza zehatza – 0 puntu
- Proiektuaren kalitatea – 4 puntu

*(Baliabideen kudeaketa, kideen formakuntza maila, aurrekontua, metodologia, herrian duen inplikazioa, etab.).*

- Proposamen berritzailea izatea – 2 puntu
- Genero ikuspegia proiektuan modu transbertsalean txertatuta izatea – 3 puntu

(Hizkuntza ez-sexista erabiltzea, datuak sexuaren arabera bereiztea, kontuan izatea esku-hartzearen esparruan AURRE EGITEKO diferentziak, beharrak edo egoerak...).

- Euskara hizkuntza normalizatu bezala erabiltzea – 3 puntu
- Kulturartekotasuna proiektuan kontuan hartzea – 3 puntu

**c) Elkartea kontuan hartuta (27 puntu):**

- Gizarte zerbitzuekin duen lankidetza – 10 puntu
- Elkartearen tamaina, kideen kopurua eta ordezkaritza
    - 100 kide baino gehiago – 10 puntu
    - 100 eta 50 artean – 5 puntu
    - 50 kide baino gutxiago – 0 puntu
- Lankidetza beste elkarteekin – 7 puntu

    Lankidetza etengabea – 7 puntu
    Lankidetza puntuala – 3 puntu

Beharrezkoa da proiektuak gutxienez 25 puntu lortzea diru-laguntza jasotzeko.

Diru-laguntzen zenbatekoak ezartzeko, puntu gehien lortzen dituzten hiru lehen entitateek hobaria izango dute, ordena honetan:

Lehenak edo puntu gehien dituenak: 2.000 euro.
Bigarrenak: 1.500 euro.
Hirugarrenak: 1.000 euro.

Puntu gehien dituzten 3 entitateen artean, baldin eta puntu-kopuru bera lortzen badute bik edo gehiagok, dirua modu proportzionalean banatuko da.
Era berean, gainerako entitate eskatzaileen artean diru-laguntzen zenbatekoak honela zehaztuko dira: geratzen den aurrekontu erabilgarria zati puntuazio guztien batura.

- Duración de la actividad:
    - Durante todo el año – 8 puntos
    - Actividad puntual – 0 puntos
- Calidad del proyecto – 4 puntos

(Gestión de recursos, nivel de fomación de miembros, presupuesto, metodología, implicación que tiene en el municipio, etc.)

- Que sea una propuesta innovadora – 2 puntos
- Incorporar la perspectiva de género de forma transversal – 3 puntos

(Utilizar lenguaje no sexista, diferenciación de datos por sexo, tener en cuenta diferencias, necesidades o situaciones que puedan COMBATIR en el ámbito de intervención, etc.)

- Utilizar el euskara como lengua normalizada – 3 puntos
- Tener en cuenta la interculturalidad en el proyecto – 3 puntos

**c) En relación a la asociación (27 puntos):**

- Colaboración que tiene con los Servicios Sociales – 10 puntos
- Tamaño de la asociación, número de miembros y representación
    - Más de 100 – 10 puntos
    - Entre 100 y 50 – 5 puntos
    - Menos de 50 – 0 puntos
- Colaboración con otras asociaciones (7 puntos)
    - Colaboración continua – 7 puntos
    - Colaboración puntual – 3 puntos

Será necesario que los proyectos obtengan al menos 25 puntos para poder ser subvencionados.

Para el establecimiento de las cantidades a subvencionar, las tres primeras entidades que consigan más puntos, tendrán una bonificación en el siguiente orden:

Entidad con mayor puntuación: 2.000 €
Entidad con segunda mayor puntuación: 1.500 €
Entidad con tercera mayor puntuación: 1.000 €

En caso de igual puntuación entre 2 o más asociaciones de las 3 con mayor puntuación, el reparto de dicho dinero se realizará de manera proporcional.
Asimismo, para establecer la cantidad de la subvención entre el resto de las entidades solicitantes, se sumarán todas las puntuaciones obtenidas, dividiendo por ellas el presupuesto disponible restante:

| | |
|---|---|
| Aurrekontua – (2.000 € + 1.500 € + 1.000 €)<br>Entitate guztien artean lortutako puntu kopurua<br><br>Horrelaxe kalkulatuko da lortu den puntu bakoitzeko eman beharreko zenbatekoa. | Presupuesto – (2.000 € + 1.500 € + 1.000 €)<br>Nº de puntos obtenidos entre todas las entidades<br><br>De manera que se obtenga el importe a otorgar por cada punto obtenido |
| **8. DIRU-LAGUNTZEN ORDAINKETA ETA JUSTIFIKAZIOA.**<br><br>8.1- 1.000 eurotik beherako diru-laguntzak ordainduko dira aurkeztean jardueren memoria (I. eranskina), behin betiko balantzea eta faktura originalak, egindako gastua egiaztatzen dutenak (II. eranskina).<br><br>8.2- 1.000 eurotik gorako diru-laguntzak bi epetan ordainduko dira:<br><br>- Zenbateko osoaren % 75, ebazpena jakinaraztearekin batera.<br><br>- Gainontzeko % 25a aurkeztean behin betiko memoria, diru-sarreren eta gastuen balantzea eta faktura originalak, edota konpultsatutako kopiak, egindako gastua justifikatzen dutenak (II. eranskina).<br><br>Dokumentazioa aurkezteko epea: hurrengo urteko urtarrilaren 31 arte.<br><br>Diru-laguntzaren entitate onuradunek, dagokien diru-laguntza jasotzeko, egiaztatu behar dute, agiri eguneratuekin, zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzakoak egunean dituztela.<br><br>Diru-laguntza emateak ez dakar berekin lotura administratibo, merkantil edo laboralik Tolosako Udalarekin.<br><br>Honako arautegian erregulaturiko diru-laguntzen kopuruak ezingo du inoiz gainditu talde hartzaileak garatuko jardueraren kostua, laguntza hori bakarrik edo beste administrazio zein erakunde publiko edo pribatuek emandakoekin batera izanda ere.<br><br>**9. LAGUNTZEN BATERAGARRITASUNA**<br><br>Jaso daitezkeen diru-laguntzak bateragarriak izango dira beste administrazio edo ente publiko eta pribatuen diru-laguntzekin, oinarri espezifikoek besterik xedatzen dutenean izan ezik. | **8. ABONO DE LAS SUBVENCIONES Y SU JUSTIFICACIÓN**<br><br>8.1- Las subvenciones inferiores a 1.000 euros se abonarán tras la entrega de la memoria de actividades (Anexo I) y balance definitivo de ingresos y gastos de la entidad junto con las facturas originales justificativas del gasto realizado (Anexo II)<br><br>8.2- Las subvenciones superiores a 1.000 euros se abonarán en dos plazos:<br><br>- El 75% de la cuantía total junto con la notificación de la resolución.<br><br>- El 25% restante, tras la entrega de definitiva memoria, balance de ingresos y gastos, y facturas originales, o en su caso copias compulsadas, justificativas del gasto realizado. (Anexo II).<br><br>Plazo de presentación de la documentación: 31 de enero del año siguiente.<br><br>Las entidades beneficiarias de las subvenciones, deberán presentar previo al cobro de la correspondiente subvención, justificantes actualizados de que se encuentran al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones tributarias y con la Seguridad Social.<br><br>La percepción de subvenciones no implica vinculación administrativa, mercantil o laboral con el Ayuntamiento de Tolosa.<br><br>El importe de las subvenciones reguladas en la presente normativa en ningún caso podrá ser de tal cuantía que aisladamente o en concurrencia con subvenciones o ayudas de otras administraciones o entes públicas o privadas, supere el coste de las actividades a desarrollar por el colectivo beneficiario.<br><br>**9. COMPATIBILIDAD CON OTRAS SUBVENCIONES**<br><br>Las subvenciones que pudieran percibirse del Ayuntamiento de Tolosa serán compatibles con las de otras administraciones o entes públicos o privados, salvo disposición en contrario de las bases |

| | |
|---|---|
| Nolanahi ere, diru-laguntzen bidez edo beste iturri batzuen bidez lortutako finantzaketaren kopuruak ezin izango du gainditu diruz lagundutako programaren kostua.<br><br>**10. ONURADUNEN BETEBEHARRAK**<br><br>Diru-laguntza jasotzen duen entitateak bete beharko ditu deialdi honetan ezarritako xedapenak eta diru-laguntzak emateko udal ordenantzak xedatutakoa.<br>Pertsonaren edo elkarteren batek bere jardueretarako Tolosako Udaletik diru-laguntzaren bat jasotzen badu, idatziz sortzen duena (kartelak, oharrak, iragarkiak, propaganda…) euskaraz edo ele bietan egon behar du, azken kasu horretan euskarari lehentasuna emanda. Berdin jokatu behar da ahozko jardunean ere (bozgorailuetakoa...).<br>Era berean, proiektu eta jarduerean ezin izango da hizkuntza sexista erabili, eta saihestu egin behar da emakumeen irudi estereotipatuak erabiltzea. | específicas.<br>En cualquier caso, el montante de la financiación obtenida, por subvenciones y otras fuentes, no podrá resultar superior al coste del programa subvencionado.<br><br>**10. OBLIGACIONES DE LA PERSONA O ENTIDAD BENEFICIARIA**<br><br>La entidad perceptora de la subvención tendrá la obligación de cumplir con las disposiciones establecidas en la presente convocatoria, así como con lo dispuesto en la Ordenanza municipal de concesión de subvenciones.<br>Cualquier persona o asociación que perciba del Ayuntamiento de Tolosa algún tipo de subvención en razón a sus actividades, quedará obligada a redactar en euskara o en euskara o castellano —en este último caso dando preferencia al euskara— los escritos, anuncios, avisos y los relacionados con la propaganda. Se actuará de igual forma en la comunicación oral en actos concretos (megafonía...).<br>Asimismo, en los proyectos y actividades no podrá utilizarse un lenguaje sexista y se evitará la utilización de imágenes estereotipadas de las mujeres. |
| **11.- BALDINTZAK EZ BETETZEA**<br><br>Oinarriotan jarritako baldintzak betetzen ez dituen elkarteari ez zaio diru-laguntza emango, eta halakoetan, gainera, aurrez jasotako diru guztia itzuli egin beharko du.<br><br>**12. BETE BEHAR DEN ARAUDIA**<br><br>Eskaerak ebazteko prozedurak behar behar ditu, batetik, 38/2006 Legea, 38/2003 Legearen Erregelamendua onartzen duena, eta bestetik, diru-laguntzak emateko Tolosako Udalak duen Ordenantza.<br>Era berean, bete behar da ondorengo gaiei buruz xedatutakoa: gizonen eta emakumeen berdintasuna, migranteen arreta, desgaitasunen bat dutenen integrazioa, eta hizkuntza normalizazioa; eta, azkenik, gainerako araudi osagarria. | **11. INCUMPLIMIENTO DE LAS CONDICIONES ESTABLECIDAS**<br><br>Si no se cumplen las condiciones establecidas en estas bases no se concederá la ayuda económica, y además la asociación deberá devolver lo percibido previamente.<br><br>**12. NORMATIVA APLICABLE**<br><br>El procedimiento para la resolución de las solicitudes se ajustará a lo regulado en la Ley 38/2006, por el que se aprueba el Reglamento de la Ley 38/2003 y en la Ordenanza Municipal para la concesión de Subvenciones del Ayuntamiento de Tolosa.<br>Asimismo, será de aplicación lo dispuesto en materia de igualdad de mujeres y hombres, de atención a las personas inmigrantes, integración de las personas con discapacidad, de integración de normalización lingüística, y demás normativa complementaria. |
| **13.- INTERPRETAZIOA**<br><br>Oinarri hauek arautzen ez dutenaren aurrean, diru laguntzen ordenantza orokorra aplikatuko da. | **13. INTERPRETACIÓN**<br><br>En todo lo que no esté regulado en estas bases, se aplicará la ordenanza general de |

| | |
|---|---|
| | subvenciones. |